


# Musikaz blai

MIREN SAEZ

••• Datorren urtean Irungo musika eskolan Musika Batxilergo berria eskainiko da.

## Iaz Leioan hasitako bideari jarraituz, datorren urtean Irunen jarriko dute abian Musika Batxilergo berria

LOGSE legearen arabera, orain arte posible zen Musika Batxilergo ikasketak egitea. Titulua lortzeko, batxilergoko guztientzako irakasgaiak eta musikako irakaskuntza arautuetako erdi mailako hirugarren zikloko irakasgaiak gainditu behar zituen ikasleak. Baina ikasketa hauek badute ikasle askorentzat ezegokia den ezaugarri nabarmena: tituluak musikako goi mailako ikasketak egiteko bakarrik balio du. Ondorioz, irtenbide bakarra hori izanik, ikasle eta guraso gehienek beste batxilergo motaren bat aukeratzen zuten (Gizarte edo Natur eta Osasunekoak), eta honekin batera, musikako ikasketekin jarraitzen zuten. Horrela, ikasleek eskola ordu pilo bat eman behar izaten zuten (institutukoak eta kontserbatoriokoak), eta lan handia eta izugarrizko presioa eragiten zien.

### Irunen musikako ikasle asko dago

Irun eta inguruetako herrietan dagoen musika ikasle kopuru handia ikusita, duela hiru urte Irungo Musika Eskola eta Pio Baroja-Bidasoa institutuko arduradunek Musika Batxilergoa martxan jartzea erabaki zuten. Nahiz eta aukera polita izan, ikasleek ez zuten Batxilergo hori aukeratu. Izan ere, musikako goi mailako ikasketak egin nahi ez zuen ikasle asko zegoen. Gazteek musika tresna bat jotzen, abesten edo konposatzen ikasi nahi zuten, baina horrez gain, Unibertsitatera ere joan nahi zuten. Musika batx lergoak beste lizentziatura b aukeratzea eragozten zien, e beraz, eskaintza hark ez zu harrera onik izan. Musika Batx lergoa martxan zegoen, bain gazteek ohiko batxilergoa ikasten eta musika eskolara jo ten jarraitzen zuten, institutu kontserbatoriora, liburuak ga nean, alde batetik bestera. Ho rrelako egoeran egoteak ikasl ei zein irakasleei kalte egite zien: batzuk, lanez gainezk zeuden; besteak, ikasleen ordu tegi eta azterketa arazoei no hala irtenbidea bilatu nahia etengabe.



PABLO S. QUIZA

Musika eskolako eta institu tuko arduradunak ar zoari irtenbidea bila tzen hasi ziren. Gauza horrela, iaz Leioak Institutuak eta Musik Eskolak arazo berari ir tenbidea aurkitu ziote jakin zuten: Jaurlaritza ren baimenarekin, mu sikako goi mailako ikas ketak ez ezik, beste li zentziaturetan ere ma trikulatzeko auker ematen zuen Batxiler goa sortu zuten. Irune ere, urtebeteko lanar ondoren, ikasketa il bideak prestatu, antol mendua az tertu eta ad ministrazioarekin hit egin ostean, baimen lortua dute jada, eta da torren urtean bertak musika eskolan Musik Batxilergoa eskainiko dute.

### Musika eta Gizarteko Batxilergo berriaren ezaugarriak

Aukera hau egiten duten ikasle ek beste batxilergoetako ikasle ek adina eskola ordu izango di tuzte. Irakasgaiak hiru arlota banatuko dituzte. Hasteko, mu sikarekin harreman zuzena du ten aukerazko zein derrigorre ko irakasgaiak izango dituzte musikaren historia, musika tres na, ganbera musika, analisi mu sikala, musika tresna osaga rria... Eta horrez gain, guztien tzako berdinak diren irakas gaiak, zein Gizarte Batxilergoari dagozkionak landuko dituzte (matematika, geografia, latina filosofiaren historia...).

Beraz, datorren urtetik aurre ra musika ikasi eta Unibertsita tera joan nahi dutenentzat bide bakarreko aukera irekiko da. Batxilergo mota berri hau Irun go Musika Eskolan ikasiko dute eta irakasgaiaren arabera, insti tutuko ikasleekin (gai komunak) edo kontserbatoriokoekin (mu sikakoak) landu beharko dituz te. Baina nahiz eta kontserbato rioan egon, batxilergo berriko ikasleek besteek dituzten zerbi tzu berak izango dituzte, beste ak beste tutoreak, orientazio zerbitzua, liburutegi,...

SAN ADRIAN B.H.I.
Martin Barua, 14 BILBO - Tel.: 94 4701293
e-mail: iessanadrian@teleline.es
D.B.H. → Autobusa eta jantokia
BATXILLERGOAK → Osasun eta Natur Zientziak / Giza eta Gizarte Zientziak
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK (Kirola, gitarra...)
Bigarren hezkuntza osoa D ereduan ematen duen ikastetxe publiko bakarra Bilbon



BATXILERGORAKO aurre-matrikula epea
Maiatzaren 2tik 11ra

URIBARRI INSTITUTUA
HEZIKETA ESKAINTZAK
• D.B.H.: B eta D ereduak
• BATXILERGOAK: Natur eta Osasun zientziak - Giza eta Gizarte zientziak
• GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (Ingurugiro kimika)
Aniztasunaren trataera garatzeko giza baliabide adituak. Kalitateko irakaskuntza, hirigunetik gertu eta Bizkotxalde parkearen ondoan.
Eskabideak egiteko epea: Maiatzaren 2 tik 12ra
Helbidea: Leon, 22 • 48970 BASAURI • Tel.: 94 440 01 11/ 94 440 06 63

IURRETAKO GLHB INSTITUTUA
IRAKASKUNTZA ERTAINAK
Informazioa: Ikastetxeko idazkaritzan
Tel.: 94 681 57 12 • Faxa: 946 20 28 28
e-maila: 014950aa@hezkuntza.net
Web orria: iurretainstitutua.net
IKASKETA GUZTIAK EUSKARAZ ETA ERDARAZ
AURREMATRIKULA EPEA: MAIATZEAN 2tik 11ra
BATXILERGO TEKNOLOGIKOA (2 urte)
AURREMATRIKULA EPEA: EKAINEAN 1tik 12ra
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 urte)
AUTOMOZIOA: Ibilgailuen elektromekanika (2000 ordu)
METALA: Mekanizatua (2000 ordu)
ADMINISTRARITZA: Gestión administrativa (GAUEZ) (1400 ordu)
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 urte)
ADMINISTRARITZA: Administrazioa eta finantzak (2000 ordu)
METALA: Mekanizazio bidezko produkzioa (2000 ordu)
: Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (2000 ordu)
ELEKTRONIKA: Produktu elektronikoen garapena (2000 ordu)
INFORMATIKA: Informatika-sistemen administrazioa (2000 ordu)